



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA
SERVICIOS DE TXINGUDI-TXINGUDIKO
ZERBITZUAK SAreN
ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA,
ERLEA PROIEKTUA GARATZEKO**

Donostian, 2011ko maiatzaren 4an

ELKARTU DIRENAK:

Alde batetik, **MARKEL OLANO ARRESE** jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean eta ordezkaritza, Gipuzkoako diputatu nagusi denez.

Eta, bestetik, **JOSE ANTONIO SANTANO CLAVERO** jauna, Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatearen kudeaketa sozietate den Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzuak SAreN (aurrerantzean, Txingudiko Zerbitzuak) izenean eta ordezkaritza, bertako lehendakari denez.

Aldeek lankidetzaz hitzarmen hau izenpetzeko ahalmena onartzen diote elkarri, eta aurrekari modura

AZALTZEN DUTE:

- I. Gipuzkoako Foru Aldundia, Krisiaren Aurkako Planaren esparruan, lurraldearen dinamizazio ekonomiko eta soziala sustatzen ari da, krisia aukera gisa ikusten baitugu gure gizartea eta sare ekonomikoa berriro pentsatzeko. Planaren 4. ardatzak inbertsioak aurreikusten ditu zientzia, teknologia eta berrikuntza azpiegiturretan.
- II. Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoarako proiektu estrategiko berriak bilatzen eta abian jartzen ari da Gipuzkoa Aurrera taldearekin lankidetzan eta koordinatuta. Izan ere, talde hori da Gipuzkoako Foru Aldundiak legealdiko Kudeaketa Planean jasotako kultura politiko berriaren esparruan sustatutako lankidetzaz publiko-pribatuaren adierazle nagusia. Gipuzkoa



**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA Y
SERVICIOS DE TXINGUDI-TXINGUDIKO
ZERBITZUAK SA,
PARA EL DESARROLLO DEL PROYECTO ERLEA**

En Donostia-San Sebastián, a 4 de mayo 2011

REUNIDOS:

De una parte, **D. MARKEL OLANO ARRESE**, en nombre y representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su condición de diputado general de Gipuzkoa.

Y, de otra, **D. JOSÉ ANTONIO SANTANO CLAVERO**, en nombre y representación de Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzuak SA, sociedad de gestión de la Mancomunidad de Servicios de Txingudi (en adelante, Servicios de Txingudi), en su condición de presidente de la misma.

Las partes se reconocen recíprocamente capacidad jurídica suficiente para otorgar el presente convenio de colaboración y a modo de antecedentes

EXPONEN:

- I. La Diputación Foral de Gipuzkoa, en el marco del Plan Anticrisis, viene impulsando la dinamización económica y social del territorio, entendiendo la crisis como una oportunidad de repensar nuestra sociedad y nuestro tejido económico. El Eje 4 del citado Plan contempla actuaciones orientadas a la inversión en infraestructuras de ciencias, tecnología e innovación.
- II. La Diputación Foral de Gipuzkoa trabaja en la búsqueda y puesta en marcha de nuevos proyectos estratégicos para Gipuzkoa en colaboración y coordinación con el grupo Gipuzkoa Aurrera, exponente de la colaboración público-privada impulsada por la Diputación Foral de Gipuzkoa en el marco de la nueva cultura política recogida en el Plan de Gestión de



TXINGUDIKO ZERBITZUAK
SERVICIOS DE TXINGUDI

Aurrerak identifikatu dituen lehenasunezko esparruen artean, aplikazio teknologiko berriak garatzea dago, ondoko gai hauen inguruko proiektuetan oinarritutakoak nagusiki: aldez aurretik indarguneak egotea, sektore ekonomiko erlazionatu bat izatea, eta Gipuzkoako enpresentzat bide potentzialak irekitzea, besteak beste, balio-katean jauziak eginez haien lehiakortasuna hobetzeko.

- III. Ildo horretan, berrikuntzak egitea planteatzen da teknologietan eta prozesuetan, Txingudi Mankomunitateko ur zikloaren kudeaketaren eraginkortasuna hobetearren. Ekimen hori, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen dituen garapen iraunkorraren mesederako politiken barruan dago. Asmoa da "proiektu esperimental bat zabaltzea demostrazio modura, zeina garapen plataforma izango baita uraren zikloa kudeatzeko soluzio berrientzako". Plataforma horrek, oro har, aukera hauek eskainiko ditu: Gipuzkoako enpresek uraren zikloa garatzeko sareen gaitasuna handitzeko aplikazioak garatzea eta balioztatzea. Bestalde, Bidasoa Beherea eta Gipuzkoa, egun uraren zikloaren kudeaketaren alorrean esperientziak garatu eta zabaltzen dituzten sare autonomikoetan, espainiarretan, europarretan eta nazioartekoetan jarriko ditu.

- IV. Txingudiko Zerbitzuak, Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatearen eskumenak kudeatzen dituen sozietatea da, hain zuzen ere, mankomunitate horren kide diren Irun eta Hondarribiko uraren eta hondakinen ziklo integralari eta kaleen garbiketari buruzko eskumenak. Bere kapital soziala % 100ean mankomunitateak jartzen du.

Legislatura. Entre los ámbitos prioritarios identificados por Gipuzkoa Aurrera está el desarrollo de nuevas aplicaciones tecnológicas basadas de modo preferente en proyectos que se apoyen en cuestiones tales como la existencia de fortalezas previas, disponer de un sector económico relacionado, abrir potenciales vías a las empresas guipuzcoanas para que mejoren su posición competitiva mediante saltos en la cadena de valor, etc.

- III. En esta línea se plantea el desarrollo de innovaciones tecnológicas y de proceso para la mejora de la eficiencia en la gestión del ciclo del agua en la Mancomunidad de Txingudi. La iniciativa se enmarca, también, en las políticas favorecedoras de un desarrollo sostenible impulsadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa. Se trata de "desplegar un proyecto experimental a modo de demostración, que sirva como plataforma de desarrollo de nuevas soluciones de gestión del ciclo del agua". La disponibilidad de dicha plataforma permitirá, desde un punto de vista general, que las empresas de Gipuzkoa puedan desarrollar y validar aplicaciones orientadas a mejorar las capacidades de las redes de gestión del ciclo del agua. Por otro lado, posicionará a la comarca del Bajo Bidasoa y al territorio de Gipuzkoa en las redes autonómicas, españolas, europeas e internacionales que actualmente desarrollan y difunden experiencias en el campo de la gestión del ciclo del agua.

- IV. Servicios de Txingudi es la sociedad que gestiona las competencias de la Mancomunidad de Servicios de Txingudi, relativas al ciclo integral del agua, ciclo integral del residuo y limpieza viaria de las poblaciones mancomunadas, Irun y Hondarribia. Está constituida con capital íntegramente de la citada mancomunidad.



- V. 2001. urteaz geroztik, Txingudiko Zerbitzuak sozietateak ur ziklo integralaren kudeaketaren eredu eraginkor baterantz eboluzionatu du; ziklo hori oinarritzen da, alde batetik, kudeaketa fluxu desberdinei buruzko hausnarketan, eta, bestetik, komunikazio-sare finko baten bidezko ur-kontagailuen urrutiko teleirakurketa ezartzean.
- VI. Eredu hori, "ERLEA" izenekoa, Bidasoa Beherea eskualdeko kontagailuen % 20an ezarrita dago, eta abantaila garrantzitsuak lortu ditu ingurumenari dagokionez, alde batetik, Buena Vista deposituaren banaketa sareetan ura aurreztuz, eta, bestetik, herritarrei eskainitako zerbitzuan nabarmen hobetuz, kudeaketarako irtenbide berrienak erabiltzen.
- VII. Komunikazio-sare finko bat edukitzeak eta ERLEA garatutako geoposizionamenduak plataforma bat eskaintzen dute kudeaketako eraginkortasun hori Txingudiko Zerbitzuak elkartearen eskumeneko gainerako jardueretara zabaltzeko, hala nola, hondakinen kudeaketara eta kaleen garbiketara.
- VIII. ERLEA proiektu horrek aplikazio informatikoak garatzeko eta ezartzeko lanak hartzen ditu, eta baita Gipuzkoako zortzi enpresak egindako zerbitzuen garapena ere; modu horretan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan traktore gaitasuna duen eta jakintza sortzen duen enpresa proiektu bihurtzen da, oso inbertsio ekonomiko handia duena. Zehazki, proiektuak guztira 8.350.000 euroko kostua izango duela aurreikusten da, eta 2011. urterako aurrekontua 2.525.000 euro da.
- IX. Horiek horrela, Diputatuen Kontseiluaren 2011ko apirilaren 5eko erabakiaz, proiektuarentzat 450.000 euroko diru laguntza eman du Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Lurralde
- V. Desde 2001, Servicios de Txingudi ha venido evolucionando hacia un modelo de gestión eficiente del ciclo integral del agua, basado por un lado en la reflexión sobre los diferentes flujos de gestión y, por otro, en la implantación de la radiolectura a distancia de los contadores de agua mediante una red fija de comunicación.
- VI. Dicho modelo, denominado "ERLEA", ha sido implementado en el 20% del parque de contadores de la Comarca del Bajo Bidasoa, habiéndose obtenido importantes beneficios medioambientales en cuanto al ahorro de agua en las redes de distribución urbana del depósito Buena Vista, así como una significativa mejora de la oferta en el servicio al ciudadano mediante el empleo de las más novedosas soluciones de gestión.
- VII. La disposición de una red fija de comunicaciones y el geoposicionamiento desarrollados en ERLEA, ofrecen una plataforma que ha permitido extender la eficiencia en la gestión al resto de las actividades competencia de Servicios de Txingudi, gestión de residuos y limpieza viaria.
- VIII. El citado proyecto ERLEA engloba el desarrollo e implementación de aplicaciones informáticas y desarrollo de servicios por ocho empresas guipuzcoanas, convirtiéndose en un proyecto empresarial tractor y generador de conocimiento en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, con una muy significativa inversión económica. Concretamente, el coste total del proyecto se estima que asciende a 8.350.000 euros, siendo el presupuesto para el año 2011 de 2.525.000 euros.
- IX. Por todo ello, la Diputación Foral de Gipuzkoa, mediante Acuerdo del Consejo de Diputados de 5 de abril de 2011, ha concedido una subvención de 450.000 euros para el proyecto de referencia al



Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 20.3.c) artikuluari jarraikiz, interes publikoko arrazoiak eta arrazoi ekonomikoak daudela iritzita.

- X. Ondorioz, alde biek egoki deritzote lankidetzaz hitzarmen hau sinatzeari, honako klausula hauen arabera:

ESTIPULAZIOAK

Lehenen.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea honako hau da: ERLEA proiektuaren teleirakurketako moduloen sare finkoaren hedapena finantzatzeko Txingudiko Zerbitzuak sozietateari emandako diru laguntza zein baldintzetan ematen den arautzea.

Bigarrenen.- Aldeen konpromisoak.

2.1. Txingudiko Zerbitzuak sozietateak konpromisoa hartzen du ERLEA proiektua garatzeko. Proiektu horren helburuak ondokoak dira, aintzat hartuta Gipuzkoako enpresek eta ikerketa zentroek egun ekar ditzaketen teknologiak eta etorkizuneko garapeneko ildo estrategikoak:

- Erabat garatzea uraren, hondakinen eta kaleak garbitzearen kudeaketa eredu eraginkorra.
- Ura kudeatzeko iraunkortasuna hobetzen laguntzea, banaketa sareen errendimendua handituz.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko jakintza eta garapenaren kudeaketa gehitzeko lana sustatzea, aberastasuna sortuko duen eta Gipuzkoako enpresa talde esanguratsu baten traktore izango den jarrera berritzailea sustatuz, Gipuzkoatik kanpo ere kudeaketa eredu moduan erabili ahal izateko.

amparo de lo previsto en el artículo 20.3.c) de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, puesto que concurren razones de interés público y económico que la justifican.

- X. En consecuencia, las dos partes consideran de común interés formalizar el presente convenio de colaboración, que se regirá de conformidad con las siguientes:

ESTIPULACIONES

Primera.- Objeto.

Es objeto del presente convenio regular las condiciones de concesión de la subvención a Servicios de Txingudi para financiar la extensión de la red fija de módulos de radiolectura del proyecto ERLEA.

Segunda.- Compromisos de las partes.

2.1. Servicios de Txingudi se compromete a desarrollar el proyecto ERLEA, cuyos objetivos, desde el punto de vista de las tecnologías que actualmente pueden aportar las empresas y centros de investigación guipuzcoanos así como sus líneas estratégicas de desarrollo futuro, son:

- Desarrollar a su plenitud el modelo eficiente de gestión de agua, residuos y limpieza viaria.
- Colaborar a mejorar la sostenibilidad en la gestión del recurso del agua mediante el aumento del rendimiento de las redes de distribución.
- Promover el incremento de la gestión del conocimiento y desarrollo en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, mediante el fomento de una actitud innovadora generadora de riqueza y tractora de un significativo grupo de empresas guipuzcoanas, que sirva como modelo de gestión allende nuestro Territorio.



Plataformaren lanen emaitza hiri barruko zerbitzuen alorreko enpresen eta beste erakunde lankideren eskura jarriko da, hartara ezagutza horrek indartu dezan soluzio berrien garapena, balio erantsia sor dezan eta enpresa sarearen lehiakortasuna hobetu dezan.

Guztira, ERLEA proiektuak 8.350.000 euroko kostua izango duela aurreikusten da eta 2011. urterako aurrekontua 2.525.000 euro da.

2.2. Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du 450.000 euroko ekarpena egiteko aurrekontuko 1.0110.100.762.09.01.2011 kontu sailaren kargura, hartara ERLEA proiektuko gastuak finantzatzeko.

Hirugarrena.- Ordaintzeko modua

3.1. Aurreko 2.2 estipulazioan aipatutako zenbatekoa modu honetan ordainduko zaio Txingudiko Zerbitzuak sozietateari:

- % 50 lankidetzak hitzarmen hau sinatzen den unean, aurrerakin gisa. Dirua aurreratze hori egiten da hitzarmen honen xede diren ekintzak burutu ahal izateko beharrezkoa den finantzaketa bezala, eta ez da bermerik eratzea eskatuko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko Foru Arauaren Erregelamendua onartzen duen 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren 21.2.a) artikuluan adierazitakoa aplikatuz.
- Beste % 50a, hitzarmen honen babesean egindako jarduketaren gastuak justifikatu ostean, 2011ko abenduaren 31 baino lehen eta zazpigarren estipulazioan ezarritako eran justifikatu ere.

El resultado de las labores de la plataforma se pondrá a disposición de las empresas del sector de los servicios urbanos y de otras organizaciones colaboradoras, al objeto de que este conocimiento refuerce el desarrollo de nuevas soluciones, genere valor añadido y mejore la competitividad del tejido empresarial.

El coste total del proyecto ERLEA se estima que asciende a 8.350.000 euros, siendo el presupuesto para el año 2011 de 2.525.000 euros.

2.2. La Diputación Foral de Gipuzkoa se compromete a realizar una aportación de 450.000 euros con cargo a la partida presupuestaria 1.0110.100.762.09.01.2011, con el objeto de financiar los gastos derivados del proyecto ERLEA.

Tercera.- Forma de pago

3.1. La cantidad señalada en la estipulación 2.2 será satisfecha a Servicios de Txingudi del siguiente modo:

- El 50% a la firma del presente convenio de colaboración, en concepto de anticipo. Este anticipo se realiza como financiación necesaria para poder llevar a cabo las acciones objeto del presente convenio, sin que se exija la constitución de garantía alguna en aplicación del artículo 21.2.a) del Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, por el que se aprueba el Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.
- El otro 50% una vez justificados los gastos de las actuaciones realizadas al amparo del presente convenio, en los términos de la estipulación séptima y antes del 31 de diciembre de 2011.



3.2. Dagokion ordainketa egin aurretik, onuradunak egiaztatu behar du zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Laugarrena.- Diru laguntzen bateragarritasuna.

4.1. Diru laguntza hau ez da estatu laguntza Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107.1 artikuluan ezartzen den zentzuan, ez baititu betetzen bertan aurreikusitako baldintzak; izan ere, diru laguntza honek ez dakar onurarik enpresa batentzat eta ez die enpresa edo ekoizpen jakin batzuei laguntzen edo mesede egiten beste batzuen kaltetan; horrenbestez, salbuetsita dago aipatu Itunaren 108.3 artikulua ezarritako jakinarazpen prozeduratik.

4.2. Laguntza hau bateragarria izango da onuradunak jaso ditzakeen eta xede bera duten bestelako diru laguntzekin, emaila edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatu izan, estatukoa, Europar Batasuneko edo nazioartekoa, betiere, denak batuta, diruz laguntzen den jardueraren kostua gainditzen ez bada.

Bosgarrena.- Informazioa.

Txingudiko Zerbitzuak sozietateak jakinaraziko dio Gipuzkoako Foru Aldundiari zein jarduera burutzen dituen eta zein emaitza lortzen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatu ahal izango dio behar adina informazio egiaztatzeko zein egoeratan den hitzarmen honen xede den jarduera.

Seigarrena.- Txingudiko Zerbitzuak sozietatearen betebeharrak onuradun gisa.

Diru laguntzaren onuradun den aldetik Txingudiko Zerbitzuak sozietateak obligazio hauek bete behar ditu:

- a) Diru-laguntza eman zaion xedera bideratu behar du.

3.2. Antes de realizar el abono correspondiente, la entidad beneficiaria deberá acreditar que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

Cuarta.- Compatibilidad de las subvenciones.

4.1. La presente subvención no constituye ayuda estatal en los términos del apartado 1 del artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, por no cumplir las condiciones establecidas en el mismo, dado que no supone un beneficio para una empresa ni favorece a determinadas producciones o empresas en detrimento de otras; por tanto, queda excluida del procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 de dicho Tratado.

4.2. Esta subvención es compatible con cualquier otra que Servicios de Txingudi reciba para la misma finalidad, procedente de cualesquier administración o ente público o privado nacional, de la Unión Europea o de organismos internacionales, siempre que, en su conjunto, no se supere el coste total de la actividad subvencionada.

Quinta.- Información.

Servicios de Txingudi informará a la Diputación Foral de Gipuzkoa de las actuaciones que vaya desarrollando y de los resultados que vaya obteniendo, y la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá solicitar toda la información que considere oportuna para verificar el desarrollo de las actividades objeto del presente convenio.

Sexta.- Obligaciones de Servicios de Txingudi en su condición de beneficiaria.

Como beneficiaria de la subvención, Servicios de Txingudi deberá cumplir las siguientes obligaciones:

- a) Destinar la subvención al fin para el que ha sido concedida.



- b) Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazi behar dio eskuratu duen edozein diru laguntza, baldin eta hitzarmen honen xede bererako bada. Zenbatekoa eta nondik datorren adierazi behar ditu.
- c) Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzara adierazi behar du diruz lagundutako jarduerak eragiten dituen elementu, esku-liburu, argitalpen eta iragarki guztietan. Hori, gainera, gutxienez euskaraz agertu beharko da.
- d) Oro har, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzak arautzen dituenak, 13. artikuluan ezartzen dituen betebeharrak guztiak bete behar ditu.
- b) Comunicar a esta Diputación Foral de Gipuzkoa la obtención de cualquier subvención o ayuda para la misma finalidad objeto del presente convenio, indicando importe y procedencia.
- c) Hacer constar la colaboración de la Diputación Foral de Gipuzkoa en todos aquellos elementos, folletos, publicaciones o publicidad en general que genere la actividad subvencionada, la cual deberá realizarse, por lo menos, en euskera.
- d) Y en general cumplir cuantas obligaciones se señalan en el artículo 13 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Zazpigarrena.- Diru-laguntza justifikatzea.

7.1. Emandako diru laguntza zuritze aldera, Txingudiko Zerbitzuak sozietateak 2011ko abenduaren 31 baino lehen honako agiri hauek aurkeztu behar ditu:

1.- Hitzarmen hau betetzeko egindako jarduerak eta lortutako emaitzak azalduko dituen jarduketara memoria.

2.- Hitzarmen hau betetzeko egindako jardueren kostua egiaztatzen duen memoria ekonomikoa, honako hauek biltzen dituenak:

- Zerrenda sailkatu batean jasota, jardueraren gastuak edo inbertsioak, bakoitzaren hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazita.
- Fakturak, edo merkataritzako trafiko juridikoan haien pareko froga balioa edo eraginkortasun administratiboa duten agiriak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan adierazitakoak, eta, behar izanez gero, ordainketaren egiaztagiria.

Séptima.- Justificación de la subvención.

7.1. Para justificar la subvención concedida, Servicios de Txingudi deberá presentar antes del 31 de diciembre de 2011 la siguiente documentación:

1.- Una memoria de actuación, con indicación de las actuaciones realizadas en ejecución del presente convenio así como de los resultados obtenidos.

2.- Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas en la ejecución de este convenio, que contendrá:

- Una relación clasificada de los gastos o inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.
- Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior y, en su caso, la documentación acreditativa del pago.



- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- Hala balegokio, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 30.3 artikuluan jasotakoaren arabera onuradunak eskatu behar izan dituen 3 aurrekontuak.

7.2. Diruz lagundutako jarduerak hitzarmenaren indarraldian amaitu beharko dira.

7.3. Diru laguntza zuritzeko epean ez bada estipulazio honen 1. atalean agertzen den dokumentazioa aurkezten, 15 eguneko epean aurkez dezan eskatuko dio onuradunari organo eskudunak.

7.4. Diru laguntzaren onuradunak 4 urteko epean gorde egin behar ditu diruz lagundutako jarduera egin dela eta jasotako funtsak erabili direla egiaztatzen duten agiriak. Egiaztagiriak aurkezteko epea amaitzen denean hasiko da lau urteko epe hori.

7.5. Estipulazio honen 1. atalean aipatutako agiriak aurkeztu ostean, espediente bideratzen duen organoak dagokion egiaztapena egingo du. Egiaztapen horren ondorioz ateratzen bada kostu subentzionagarria txikiagoa dela eman zen diru laguntza baino, edo diru laguntza zuritzeko baldintzak ez direla osorik edo neurri batean bete, edo ez direla diru laguntzaren helburuak bete, interesatuari gorabehera horren berri emango zaio, egindako egiaztapenaren emaitzak jakinaraziko zaizkio eta hamargarren estipulazioan aurreikusten den prozedurari ekingo zaio.

- Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia.
- En su caso, los 3 presupuestos que, en aplicación del artículo 30.3 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, deba de haber solicitado la entidad beneficiaria.

7.2. La totalidad de las actuaciones subvencionadas deberán concluirse en el plazo de vigencia del presente convenio.

7.3. Transcurrido el plazo establecido para la justificación de la subvención sin que se hubiese presentado la documentación a que se refiere el apartado 1, el órgano competente requerirá a la persona beneficiaria para que en el plazo de 15 días aporte la misma.

7.4. La entidad beneficiaria está obligada a conservar, durante un plazo de 4 años, los justificantes de la realización de la actividad que fundamenta la concesión de la subvención, así como la aplicación de los fondos percibidos. El citado plazo computará a partir del momento en que finalice el periodo establecido para presentar la citada justificación.

7.5. Una vez presentada la documentación señalada en el apartado 1, se realizará por el órgano instructor del expediente la correspondiente comprobación. Si como resultado de dicha comprobación se dedujera que el coste subvencionable ha sido inferior a la subvención concedida o que se han incumplido, total o parcialmente, los requisitos establecidos para la justificación de la subvención o los fines para los que fue concedida la misma, se comunicará tal circunstancia a la entidad interesada junto a los resultados de la comprobación realizada y se iniciará el procedimiento previsto en la estipulación décima.



Zortzigarrena.- Azpikontratazioa.

Txingudiko Zerbitzuak sozietateak hirugarrenekin kontzertatu ahal izango du jardueraren gauzatze osoa edo partziala, betiere 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzak arautzen dituenak, 28. artikuluan ezartzen dituen baldintzak betetzen baditu.

Bederatzigarrena.- Hitzarmena aldatzea.

9.1. Hitzarmena aldatzea eska diezaioke Txingudiko Zerbitzuak sozietateak Gipuzkoako Foru Aldundiari, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen. Halatan, eska daiteke ezarritako epeak luzatzea, emandako zenbatekoa murriztea edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzea, eta eskatutakoa onartuko da baldin eta aurreikusi ezin ziren gorabeherak gertatu badira edo eskatutakoa onartzea beharrezkoa bada jardueraren burutzapen egokirako. Dena den, eskatutakoa onartzeak ez du diru laguntzaren xedea edo helburua aldatu behar eta ez dio hirugarren bati kalterik egin behar.

9.2. Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmena alda dezake, betiere Txingudiko Zerbitzuak sozietateari aurretik jakinarazita eta funtsak aplikatu aurretik, baldin eta diru laguntza hau onartzeko aintzat hartu diren baldintzak aldatzen badira eta, ondorioz, ezin bada, edo oso zail bihurtzen bada, interes publikoa lortzea. Dena dela, aldaketa horrek ezin dio kalte ekonomikorik eragin Txingudiko Zerbitzuak sozietateari.

9.3. Txingudiko Zerbitzuak sozietateak diru laguntza justifikatzerakoan aditzera ematen badu aldatu egin direla diru laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak, baina aldaketa onartu aurreko baimen administratiboaren tramitea ez zela egin bere garaian, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu ahal izango du aurkeztu dioten justifikazioa, alde batera utzi gabe Txingudiko Zerbitzuak sozietateari jar dakioken zigorra, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde

Octava.- Subcontratación.

Servicios de Txingudi podrá concertar con terceras personas la ejecución total o parcial de la actividad que constituye el objeto de la subvención, siempre que cumpla con los requisitos establecidos en el artículo 28 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Novena.- Modificación del convenio.

9.1. Servicios de Txingudi podrá solicitar de la Diputación Foral de Gipuzkoa, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones del presente convenio que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceras personas.

9.2. La Diputación Foral de Gipuzkoa podrá modificar el presente convenio, previa comunicación a Servicios de Txingudi y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a Servicios de Txingudi.

9.3. Cuando Servicios de Txingudi ponga de manifiesto en la justificación de la subvención que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma, que hubieran podido dar lugar a la modificación de la concesión, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá aceptar la justificación presentada, sin que ello exima a Servicios de Txingudi de las sanciones que



Historikoko diru laguntzak arautzen dituenak, dioenari jarraikiz.

Hamargarrena.- Ez betetzeak eta diru itzulketak.

10.1. Jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira eta diru laguntza ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutza interesak ordaindu beharko dira hurrengo kasuetan:

- a) Diruz lagundutako jardueraren xedea ez betetzea.
- b) Zuritzeko betebeharra ez betetzea, edo modu nahikoan ez zuritzea.
- c) Gipuzkoako Foru Aldundiak egin beharreko egiaztatze jardueren aurrean, erresistentzia jartzea edo aitzakiak aritzea, edo traba egitea, edo ezetz erantzutea.
- d) Oro har, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzak arautzen dituenak, 35. artikuluan diru laguntzak itzultzeko ezartzen dituen arrazoren bat gertatzea.

10.2. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarrerak izango dira.

Hamaikagarrena.- Indarraldia.

11.1. Hitzarmen honek bi alderdiek sinatzen dutenetik sortuko ditu ondorioak eta behartuko ditu parte hartzaileak, eta 2011ko abenduaren 31 arte iraungo du eta, edonola ere, bertan ezarritako konpromiso guztiak bete arte.

11.2. Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, beste alderdiaren esku egongo da haiek zorrotz betearaztea edo hitzarmena hautsi dadin eskatzea.



TXINGUDIKO ZERBITZUAK
SERVICIOS DE TXINGUDI

puedan corresponder con arreglo a la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Décima.- Incumplimientos y reintegros.

10.1. Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento en que se haya efectuado el pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los siguientes supuestos:

- a) Incumplimiento de la finalidad para la que la subvención fue concedida.
- b) Incumplimiento de la obligación de justificación o justificación insuficiente.
- c) Resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación necesarias por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- d) Y en general, cuando se dé alguno de los casos que para el reintegro de subvenciones se señalan en el artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

10.2. Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de derecho público.

Undécima.- Vigencia.

11.1. El presente convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma y estará en vigor hasta el 31 de diciembre de 2011 y en todo caso hasta el total cumplimiento de las obligaciones contempladas en el mismo.

11.2. El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra para exigir su estricto cumplimiento o solicitar la resolución del convenio.



Hamabigarrena.- Araubide juridikoa.

12.1. Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta ordenamendu juridiko administratiboak zuzenduko du interpretazioa eta garapena. Parte hartzen duten alderdiak administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aginduetara egongo dira.

12.2. Hitzarmen honetan ezarritakoaz gain, honako hauek aplikatuko dira: 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzak arautzekoa, eta hori garatzeko erregelamendua, 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaz onartutakoa.

Eta esandako guztiarekin bat datozela agertzeko, bi aldeek izenpetu egiten dute, bi aletan, esandako egunean eta tokian.


Duodécima.- Régimen jurídico.

12.1. El presente convenio tiene naturaleza administrativa, rigiendo en su interpretación y desarrollo el ordenamiento jurídico administrativo, con expresa sumisión de las partes a la jurisdicción contencioso-administrativa.

12.2. En todo caso, además de lo previsto en el presente convenio, se estará a lo dispuesto en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en su Reglamento aprobado mediante Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

Y en prueba de conformidad con cuanto antecede firman las dos partes por duplicado ejemplar en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA /
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**


**Markel Olano Arrese
Gipuzkoako diputatu nagusia /
Diputado General de Gipuzkoa**

**SERVICIOS DE TXINGUDI-TXINGUDIKO
ZERBITZUAK SA**


**Jose Antonio Santano Clavero
Lehendakaria /
Presidente**